Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKAOKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BARRUALDE-GALDAKAO

# Plan estrategikoa

## Barrualde-Galdakaoko ESIa

## 2022 · 2025

*Denok batera!*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKAOKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA

ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

# Aurkezpena


| | | |
|---|---|---|
| 1 | Aurkezpena | 4 |
| 2 | Testuingurua | 6 |
| 3 | Metodologia | 8 |
| 4 | Misioa | 10 |
| 5 | Ikuspegia | 10 |
| 6 | Balioak | 11 |
| 7 | Estrategia | 13 |
| 8 | Esker onak | 24 |

# Aurkezpena

Ziklo estrategiko berriari ekin behar diogu, COVID-19ak eragindako pandemiaren testuinguruan. Azken 2 urteotako jardueraren baldintzatzaile izan da pandemia, eta horrek gure sistema berrantolatu beharra ekarri du. Bestalde, langile guztien inplikazioa, konpromiso eta arduraren balioa agerian utzi du.

Barrualde-Galdakaoko ESIko pertsonei eskerrak eman nahi dizkiet plan honen diseinuan izandako parte hartze zabalagatik. Milatik gora lankidetza –gure profesionalenak eta interes-taldeenak– izan dira estrategia komun eta partekatu bat definitzen lagundu digutenak, non, indarrean dagoen bitartean, "**mendi-gailurrak**" igoarazteko, eta horietara eramango gaituzten "**bideak**" ibiltzeko balioko digun.

Osasun-emaitza bikainak lortzen dituen erakundea izan nahi dugu, **kalitatezko** eta **gertuko** arreta eskaintzen duena. **Eraginkortasuna** eta **herritarren parte-hartzea** bilatzen dituena, eta **ikerketaren** eta **irakaskuntzaren** bidez ezagutza sortzen laguntzen duena.

Horretarako, Plan Estrategiko hau daukagu, ziurgabetasuneko une hauetan, inoizko beharrezkoen dena, kudeaketa-eredu arina, aldaketa berrietara egokitzeko modukoa, behar baitugu, gure helburuak begi bistatik ez galtzen lagunduko diguna. Dokumentu bizia da, beraz; gure estrategia egokitu egingo da inguruneko aldaketetara.

Ziklo berri honetan, **misioa** zehaztu dugu, gure erakundearen zergatia eta zertarakoa indartuz, eta arreta berezia jarriko dugu aurrerapausoak eta lorpenak neurtzeko sistematikan. Sortzen dugun balioa **neurtuko** dugu, helburuak erdiesten lagunduko diguten proiektuetan eta jardueretan hedatuz, kudeaketa-planen bidez.

Dokumentu honetan murgiltzera animatzen zaituztet. Datozen 4 urteetarako lehentasunezko lan-ildoak modurik ahalik eta errazenean eta atseginenean jasotzeko balio izatea espero dut, bide batez, eskerrak ematen dizkizuet, beste behin, gure osasun-sistema hobetzeko zuen eguneroko ahaleginagatik eta inplikazioagatik.

Mila esker.

**Jon Guajardo Remacha**

Barrualde-Galdakaoko ESIko
zuzendari-gerentea



# Testuingurua

Jarraian, AMIAren analisitik ateratako kanpo-egoeraren ondorio nagusiak (mehatxuak eta aukerak) aurkeztuko ditugu, horixe baita erakundearen egoera aztertzeko erabilitako metodologia. Azterketa honetan elkarlanean aritu dira Zuzendaritza, ardura-postuak dauzkaten pertsonak (beren lantaldeekin aurretiaz hausnarketa eginda), eta, nola ez, kanpoko gure interes-taldeak ere.

## Mehatxuak

## Aukerak

| |
|---|
| Langileak falta dira, eskaintzen ditugun prestazioei eusteko, asistentzia-eskariaren gorakadari aurre egiteko eta belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzeko. |
| Biztanleriaren zahartzeak eta kronikotasunak hauxe dakar: presio asistentziala eta osasun-baliabideen erabilera areagotzea. |
| Bizitzaren medikalizazioa eta paziente eskatzaileagoaren profil berria. |
| Sistemaren jasangarritasuna, hazten doan eskaeraren aurrean. |
| Mendekotasun teknologikoa eta etengabeko garapen teknologikora egokitzeko zailtasunak, ahalegin ekonomiko handia dakarrena, baliabide mugatuko ingurunean. |
| Haziz doan gizarte-problematika, asistentzia soziosanitarioaren premia areagotzea dakarrena, eta honakoak baldintzatzen dituena: ospitaleratzeak, ospitaleko egonaldiak eta altak. |
| Pandemia-egoera luzatzea eta pandemia osteko osasun-egoerari buruzko ziurgabetasuna. |

| |
|---|
| Hobetzeko aukera eskaintzen duen eraldaketa teknologikoa (e-osasuna), hauen eskutik: informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berriak, telemedikuntza, digitalizazioa, telelana, big data, eta abar. |
| Herritarrek parte hartzeko eta komunikatzeko bide berriak. |
| Koordinazio soziosanitariorako espazio berriak. |
| Ikerketa bultzatzea, Biobizkaia Osasun Ikerketa Institutuan sartu ondoren. |
| UPV/EHUrekin hitzartuta, medikuntzako gradu-aurreko irakaskuntza geureganatzea eta bultzatzea. |
| Osasun-emaitzak ebaluatzea, erakundearen balioa areagotzeko. |
| Daukagun ospe ona aprobetxatzea talentua erakartzeko. |
| Etengabeko prestakuntza zabaltzea. |
| Sareko funtzionamendua optimizatzea, arreta hobetzeko (deribatzeko akordioak). |
| Humanizazioan jokabideak hobetzea. |
| Enpleguaren kalitatea hobetzea, aldi baterako kontratuak murriztuz. |
| Rol profesional berriak. |

# Metodologia

> Dokumentu hau elkarlanean egin dugu, eta milatik gora pertsonak parte hartu dute






## 0 Gure misioa eta balioak berrikustea

### Gure misioa berrikustea

Zuzendaritza Kontseilua

### Gure balioak eguneratzea

**Barne-inkesta**
529 Profesional

## 1 Hasierako diagnostikoa

### Egoeraren AMIA analisia

**Ibilbide-orria lortzeko tailerrak**
Zuzendaritzaren Aholku Batzordea

**Banakako AMIA analisia**
Zuzendaritza Kontseilua

**Barne-inkesta**
353 lider eta beren taldeak

**Kanpo-inkesta**
Kanpoko 33 erakunde

## 2 Ikuspegiaren eta estrategiaren definizioa

### Gure ikuspegiaren definizioa

Zuzendaritza Kontseilua

### Estrategia eta adierazleen agințe-koadroa definitzea

**Barne-inkesta**
32 Profesional

**Estrategiaren lehenengo zirriborroa**
Zuzendaritza Kontseilua

**Kontrastatzeko hausnarketa-taldeak**
89 profesional eta kanpo-eragile

## 3 Komunikazioa eta hedapena

### Barruko eta kanpoko interes-taldeei jakinaraztea

ESIaren komunikazio-bideak

### BIKAIN tresnaren bidez hedatzea

Zuzendaritzaren Kudeaketa Plana eta Zerbitzu/Unitateen Kudeaketa Planak

## 4 Kudeaketa eta jarraipena

Zuzendaritzaren berrikuspenen bidezko jarraipena



## Misioa



Gure biztanleen osasun-beharrei erantzutea, sozialki arduratsua den kalitatezko zerbitzua eskainiz

| | |
|---|---|
| Arretaren kalitatea | Pazienteentzako **segurtasuna** |
| | **Irisgarritasuna** osasun-prestazioetara |
| | Arretaren **jarraitutasuna/koordinazioa** |
| | Pazienteei **informazioa** ematea |
| | Asistentziaren **humanizazioa** |
| Osasun-beharrak | **Osasunaren sustapena** |
| | **Gaixotasunaren prebentzioa** |
| | **Gaixotasunaren arreta** |

## Ikuspegia

**Osasun-emaitza** bikainak lortzen dituen erakundea izatea, **kalitatezko** eta gertuko arreta eskaintzen duena, **eraginkortasuna** eta **herritarren parte-hartzea** bilatzen duena eta **ikerketaren** eta **irakaskuntzaren** bidez ezagutza sortzen laguntzen duena.



# Balioak

Balioak dira erakundearen "**nortasuna**" definitzen dutenak. Gure erakundearen balioak berrikusi egin dituzte ESIko 500 profesionalek baino gehiagok, eta transmititu dizkiguten gako-hitzetara egokitu dira, baita horien idazkera erraztu ere. Hementxe balioen zehaztapena:



## Gertutasuna

Honakoetan oinarritutako arreta eskaintzen dugu: tratu pertsonalizatua eta duina, errespetua, enpatia eta komunikazioa.

## Profesionaltasuna

Ezagutza eta esperientzia dauzkagu eta aplikatu egiten ditugu, eraginkortasuna eta efizientzia gizarte-erantzukizuneko irizpideekin bateratuz.

## Konpromisoa

Modu arduratsuan konprometitzen eta inplikatzen gara lanarekin, gure erakundearekin eta gizartearen ongizatearekin eta osasunarekin.

## Taldea

Modu koordinatuan lan egiten dugu, helburu komun batekin; diziplina anitzeko lankidetza-testuinguru batean ezagutza eta esperientzia partekatzen ditugu, osasun-emaitzarik onenak lortzeko.

## Berrikuntza

Etengabeko hobekuntza sustatzen dugu, aldaketak geureganatzeko prest gaude, sormena garatzen dugu eta erronka berrietara egokitzen gara zerbitzurik onena eskaintzeko.

# Estrategia




Deskargatu PDFa



Berdintasuna
Euskara
Koordinazio soziosanitarioa
Erreferentziazko erakundea
raginkortasuna
Jarduera
egitura/baliabideak
n ebaluazioa
Gardentasuna
Herritarren pertzepzioa
Lidergoa
Kanpo-komunikazioa
Arreta soziosanitarioa
Patologia kronikodun eta aniztun pazienteei arreta
Ikerketa eta irakaskuntza
Sistemaren jasangarritasuna
Gizarte ongizatea
Graduaurreko eta graduondoko prestakuntza
Kultura ikertzailea
Gizarte-lana
Gizartea
Ingurumenarekiko konpromisoa

# 1. mendikatea
# Pazientea / biztanleria

**Osasun-emaitza** bikainak lortu nahi ditugu, **kalitatezko eta gertuko arreta** emanez, eta **herritarrek** osasun-sisteman **parte-har** dezaten ere sustatu nahi dugu.




**Ikuspegia**
Gailurra

1. gailurra
**Osasun-emaitzak**




**Helburu estrategikoak**
Bidea

**01** Pazienteen osasun-emaitzak **ebaluatzea**

**02** Erakundeko pazientearen **esperientzia** hobetzea

**03** **Osasunean heztea**, osasunaren prebentzioa eta sustapena bultzatuz

**Helburu operatiboak**
Eman beharreko pauso

- Balioan oinarritutako medikuntza hedatzea (PREM eta PROM)
- Net Promoter Score (NPS) pazienteen esperientziarako
- Pazienteen esperientzia-mapak
- Arreta komunitarioko hezkuntza-plana
- Kanal ugari erabiltzearen estrategia


Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAOKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD



## 2. gailurra
## Kalitatezko arreta

**04** Asistentzian **segurtasun klinikoa** bermatzea

**05** Osasun-zerbitzuekiko **asistentzia-irisgarritasuneko** maila egokiak lortzea

**06** Pazienteei **informazio** egokia bermatzea

**07** Pazienteentzako **asistentziaren jarraitutasuna** indartzea

**08** Ematen dugun asistentzian **humanizazioa** hobetzen lan egitea

- Segurtasun-plana
- Asistentziaren irisgarritasun-plana
- Pazienteentzako komunikazioa eta informazio-ematea hobetzeko plan integrala
- Sareko lana bultzatzea
- Informazio-sistema integratuak
- Errehabilitazioa gurean integratzeko proiektua
- Humanizazio-plana



## 3. gailurra
## Herritarren parte-hartzea

**09** Pazientea/zaintzailea **ahalduntzea** gaixoaren osasunaren zaintzan

**10** **Ibilbide asistentzialak** diseinatzea/hobetzea, pazienteak eta beste interes-talde batzuk inplikatuz

**11** Herritarren **parte-hartzea** bultzatzea gure erakundearen **gobernantzan**

- Autozainketako programak - Paziente bizia
- Arreta muskuloeskeletikorako plana
- Osasun-karpeta bultzatzea
- Pazienteek parte hartzeko guneak

# 2. mendikatea
# Sistemaren jasangarritasuna

Zera nahi dugu: baliabideen kudeaketa jasangarrian oinarritutako kultura **eraginkorra** sortzea; **erreferenteak** izatea, gure erakundearen ikusgarritasuna hobetuz eta talentua erakarriz; eta **koordinazio soziosanitarioa** sustatzea.



**Ikuspegia**
Gailurra

## 4. gailurra
## Efizientzia




**Helburu estrategikoak**
Bidea

**12** Arreta-sistema pazientearen benetako **beharretara** egokitzea

**13** Gure **azpiegituraren/ baliabideen** erabilera egokitzea errendimendu gorena lortzeko

**14** Jardueraren eta emaitzaren araberako **kostuen** ebaluazioan aurrera egitea

**Helburu operatiboak**
Eman beharreko pauso batzuk

- MAPAC proiektua - Egokitzapena hobetzea
- GLO - Jarduera eta produktibitatea handitzea
- Agile metodologien aplikazioa
- Ebazpen azkarreko kontsultak
- Diziplina anitzeko taldeak
- Inbertsio-plana
- Kanpo-kontsultetarako eraikinaren proiektua
- Osasun-zentroak eta kontsultategiak hobetzeko plana
- Pazienteko kostuaren proiektua





5. gailurra
**Erreferentziazko erakundea**

6. gailurra
**Koordinazio soziosanitarioa**

**15** Herritarrei konfiantza ematea, kudeaketaren eta emaitzen **gardentasunaren bidez**

**16** Gure osasun-arretarekiko **herritarren pertzepzioa** hobetzea

**17** Gure **lidergo** klinikoa eta kudeaketarena sustatzea eta ikusaraztea

**18** **Kanpo-komunikazioko** estrategia indartzea

- Ospea hobetzeko eta talentua erakartzeko proiektua
- SARBIDE proiektua - Komunikazio-kanal berriak
- Kanpoko komunikazio-plana
- Erakunde likidoa

**19** Paziente **kroniko konplexuen** (pluripatologikoak) arreta integraleko eredua indartzea

**20** **Arreta soziosanitarioa** hedatzen jarraitzea

- FARMABIDE proiektua - Euskadiko farmazia soziosanitarioa
- Pazienteen azterketa integrala
- Baliabide soziosanitarioen mapa
- Xede-kolektiboentzako arreta soziosanitarioa

3. mendikatea
# Gizartea

Gizartearen **ongizatean** lagundu nahi dugu, gure misioaz eta legezko betebeharrez harago, bai eta gure herritarren osasunari lagundu ere, ezagutza sortuz, **ikerketaren** eta **irakaskuntzaren** bidez.



**Ikuspegia**
Gailurra

7. gailurra
## Gizarte-ongizatea




**Helburu estrategikoak**
Bidea

21 **Gizarte**-ingurunearekiko **konpromisoa** sistematizatzea, gizarte-lana indartuz

22 **Ingurumenaren** jasangarritasunari laguntzen dioten neurriak bultzatzea

**Helburu operatiboak**
Eman beharreko pauso

- Gizarte Kontseilua
- Akordioak gizarte-erreferenteekin
- Proiektu eta ekimen sozialak
- Partaidetza komunitarioa
- Ingurumena Kudeatzeko Plana
- Energia berriztagarriaren % areagotzea



8. gailurra
## Ikerketa eta irakaskuntza



23 **I+G+b proiektuetan** parte hartzea bultzatzea, ikerkuntza-kultura sustatuz

24 Osasun-zientzietako profesionalen **prestakuntzan** eta garapenean aktiboki parte hartzea



- Ikerketa-jarduera eta saio klinikoak areagotzea
- Adimen artifiziala - Erabakiak hartzen laguntzeko proiektuak
- Biobizkaian parte hartzea sustatzea
- Profesionalen irakaskuntza-lana sustatzea
- Unibertsitatearekiko harremana sendotzea
- Ospitale birtuala

# Profesionalak

Erakundeko **pertsonei** protagonismoa eman nahi diegu, haien **garapen profesionala**, **inplikazioa** eta **gogobetetzea** mesedetuz.





Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAOKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Gogobeteta dauden pertsonek gailurretara igotzen dira eta erakundeen bikaintasuna erdiesten dute.
Pertsonen gogobetetzea lortzeko, honako helburu estrategiko hauek identifikatu ditugu:

| | | |
|---|---|---|
| 25 | Pertsonen **ongizatea** hobetzea | • Pertsonak taldeetan **sartzen** eta **integratzen** laguntzea<br>• **Segurtasuna eta osasuna** hobetzea, lan-ingurune osasungarria lortzeko |
| 26 | Pertsonen **konpromisoa** eta **motibazioa** bultzatzea | • Hobekuntza-taldeetan eta erabakiak hartzen **parte har** dezaten sustatzea<br>• Pertsonei egiten zaizkien **aintzatespenak** indartzea |
| 27 | Talde-lana oinarri hartuta eta helburuak begi bistatik galduko ez dituen **lidergo** parte-hartzailea indartzea | • **Lidergoaren** jarraipena eta ebaluazioa<br>• Liderrei laguntzea eta **lider berriak** identifikatzea eta gaitzea |
| 28 | Erakundearen **barne-komunikazioa** eta **integrazio/koordinazio** eraginkorra bultzatzea | • **Diziplina anitzeko** bilerak bultzatzea<br>• Zerbitzuen/unitateen **elkarreraginak** lantzea<br>• Zerbitzuak/unitateak **ezagutaraztea**<br>• Ospitaleko eta lehen mailako arretako **erreferenteen arteko topaketak** sustatzea<br>• Harreman informalak sustatzea |
| 29 | Pertsonen **ezagutza, gaitasunak eta talentua** zaintzea eta garatzea | • Behar estrategikoei erantzungo dien **etengabeko Prestakuntza** Plana sustatzea,<br>• **Gaitasunen balioestea** eta **talentuaren** kudeaketa sustatzea |

# Kudeaketa-eredua

Kudeaketa-eredu parte-hartzaile, malgua eta arina daukagu, Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Ereduan (KAE) oinarritzen dena.




Osakidetza
BARRUALDE-GALDAKAOKO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

Jarraian, gure ereduaren zeharkako elementuak, estrategia artikulatzeko beharrezkoak direnak, zehaztuko ditugu:




| | | |
|---|---|---|
| 30 | Antolakuntza- eta teknologia-**BERRIKUNTZA** sustatzeko esparru bat diseinatzea eta ezartzea | • Berrikuntza Plana<br>• Berrikuntza bultzatzeko behar den barne-testuingurua sortzea<br>• Ideiak kudeatzea, zerbitzu hobea ematea ekar dezaketen proiektu bihur daitezen |
| 31 | Erabiltzaileenganako arretan eta profesionalen artean **EUSKARAREN** erabilera indartzea | • Euskara-plana<br>• Zirkuitu asistentzial elebidunen hedapenean aurrera egitea<br>• Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak sistematikoki betetzea. |
| 32 | **BERDINTASUNEAN** aurrera egitea, erakundean genero-ikuspegia txertatuz | • Berdintasun-plana<br>• Erakundeko emakumeen ikusgarritasuna bultzatzea<br>• Genero-berdintasunarekiko pertsonen sentsibilizazioa areagotzea. |
| 33 | **ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOAREN** (ESK) kudeaketa sistematizatuan aurrera egitea erakundean | • ESKren **kudeaketa-sistema** ezartzea<br>• Koordinatuta lan egitea, gure **interes-taldeen** beharrei eta itxaropenei erantzuteko<br>• ESK ekimenak txertatzea garapen jasangarriaren helburuak (**GJH**) betetzeko |

# Eskerrak

Plan Estrategiko berri hau egiteko langileen ekarpena eskertu nahi dugu, eta, bereziki, eskerrak eman nahi dizkiogu Zuzendaritza Kontseiluari, laburtzeko eta lehentasunak zehazteko bere gain hartutako lan gehigarriagatik.

Esker-emate berezia, halaber, online inkesten bidez eta hausnarketa-taldeetan parte hartuz, ekarpenak egin dituzten elkarte, udal, mankomunitate, aldundi, ikerketa-institutu, hornitzaile, egoitza, ikastetxe, sindikatu eta Osakidetzako erakunde sanitarioei.

Milatik gora parte-hartzaileren ekarpen zabala.

**Mila esker bihotz-bihotzez!**



















Osakidetza

BARRUALDE-GALDAKAOKO
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
BARRUALDE-GALDAKAO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD